

Hurbildu, gozatu eta kontatu

Sagardotegi denboraldiko lehen asteburuan jende andana bildu zen Petritegi sagardotegian bazkaltzera

Oihana Elduaien

Denetik, Denetik aurki daiteke sagardotegian. Sagardotegi ezkerriak, eskuindarrak eta osterantzekoak batzen dituela esan zuen Jose Luis Korta arraunlariak sagardo denboraldiaren hasieran, Astigarragako Petritegi sagardotegian, eta ez zebilen oker. Upelak ireki eta lehenengo larunbatean, behinik behin, denetik dago sagardotegi hartan, bazkaltzen. Badira zaharrak, badira gazteak, haurrek, emakumezkoak, gizonezkoak, euskaldunak, kanariarrak, espainiarrak, italiarrak, frantsesak...

Holtz dago giroa, hasieran. Bakoitza berera dago, eta buila handirik ere ez dago. Batzuek txotxari ekiten diote gogor, eta besteak gustura ari dira jaten, ardo botila eta guzti. Hori bai, ipurdia ondo eserita dute. Sagardotegiko tradizioak galtzen ari dira. Lau baka-rrik daude zutik.

Erretzaileen eta ez erretzaileen arteko marra lauzpabost upelak jartzen dute, eta muga hori bi sagardotegi ezberdinen bereizgarri ere bada. Sartu, eta ez erretzaileen gunea. Familiak daude han, batik bat. Gurasoak seme-alabeekin. Goiz etorri dira. Aurrera segi, eta upelen lerroaren atzean mahai gehienak hutsik daude. Denborak aurrera egin ahala, ordea, gero eta gehiago dira betetako mahaiak, eta bukaerarako ia denak bete dira. Koadrilak dira etorritakoak. Era denetako lagun multzoak.

Bakailaoa jaterako giroa berotzen ari da apurka. Lagun talde desberdinetakoak elkarri begiratzeko diote, baina ez dira ausartzen begiraden hizkuntzatik jauzia ematen. Bat hastea nahikoa, denak nahasteko.

Ezagun dute batzuek ez direla bertakoak. Nondarrak diren ezin nabaritu, ordea. Gerturatu, galdu, eta: «Ene! Toki askotakoak gaude hemen...». Kanariarrak, gasteiztarrak eta Lazkaoko bat. Turismo gastronomikoa egiten ari omen dira. Batzuk lagunak ei ziren, honek hura ezagutzen duela, eta etortzeko, eta horrelaxe. Euskal Herrian turismo gastronomikoa egiten. Hala esan du lazkaotarrak: «Atzo elkartera eramanez nituen, eta bihar pintxoak jango ditugu Donostian». Kazetariak dira batzuk, eta bidea irekita dago-

enez, senari hegan utzi behar. Sozializazio garaia iritsi da. Galdera aurrena, «zein dira horiek?» gero, eta, konturatzerako ia-ia batera bazkaltzen.


Nazioarteko koadrila gehiago ere bada. Italiarrak, katalanak, espainiarrak... Denetik zegoen izkinako mahaian, baita bilbotarrak ere. Zerk batzen dituen galdu, eta... ezin erantzun. Batek bat ezagutzen duela. besteak bestea, Eta hangoak hura... Denak sagardotegira azkenean! Urtero egin ohi dute espedizioa. Kanpamendu basea Donostian jartzen dute, eta handik, sagardotegira, taxian. Batzuk propio etortzen dira, eta besteak, bertan bizi dira, lanagatik. Txango guztietan egoten da unea betirako gorde nahi duenen bat, eta noski! bat argazki kamerarekin etorri da. Topiko denak betez, ekialdeko fakzioak ditu gainera! Baina hitz egin gaztelaniaz egiten du, Andaluziako azentuarekin.

«Paue eta Bordele arteko herri batetik etorri gara gu», dio beste batek. Mutil mordoskako koadrila dute, emakumezko batekin. Apetitu gehiegi ez dute ekarri, baina egarria bai. Begirada hizkuntzan abilak dira hauek, bestela ez baitira oso erraz komunikatzen. Ordu beteko bidea egin dute autoz sagardotegiraino, eta gaur Baionara erretiratzekoan dira.


Aztarren handirik ez dute askok. Basoa goraino betetzen duenak, ez daki oso ondo zertan dabilen. Sagardoa gutxi eta sarri edan behar dela erakutsi ziguten. Petritegin asko eta sarri edaten dutenak ere badira. Upelak irekitzeko ardura duen Urkok ondo daki hori. Xelebrekeria asko ikusitakoa dela dio, bihurri aurpegiarekin. Basoa goraino bete, eta txorrotadan basoaren partez ahoa jartzea, kasu.

Gutxi eta sarri

Asteburuetako eta astegunetako Petritegi erabat desberdinak direla aitortu du Urkok. «Astegunetan gauzez bakarrik irekitzen dugu, eta bertako eta inguruetako jendea bakarrik etortzen da». Asteburuetako erabat desberdina da. «Bazkaltzen nahiz afitzen antzeko giroa egoten da. Euskaldunak etortzen dira, baina kanpokoak ere asko». Hurbildu, gozatu eta kontatu.



Leku askotako jendea bildu zen sagardotegi gozatzera. jon urbe / argazki prensa



Jendea upelen inguruan bilduta. jon urbe / argazki prensa